



ZIRKULARRA, 2024KO MAIATZAREN 6KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2023KO EKITALDIARI DAGOKION GIZARTE-FUNTSA BANATZEARI BURUZKOA.

CIRCULAR DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DE 6 DE MAYO DE 2024, SOBRE DISTRIBUCIÓN DEL FONDO SOCIAL CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2023.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartu zen. Akordio horren 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdia egiten da Gizarte-Funtseko laguntzak eskatzeko.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 69 del Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se establece la convocatoria para la presentación de solicitudes a fin de acogerse a las ayudas previstas con cargo al Fondo Social.

**I. KAPITULUA
OINARRI OROKORRAK**

**CAPÍTULO I
BASES GENERALES**

1. artikulua.- Laguntzen helburua eta edukia.

Artículo 1.- Objeto y contenido de las ayudas.

1. Zirkular honen helburua da honako hauek arautzea: Gizarte-Funtsaren kontura onuradunei ematen zaizkien laguntzen edukia, kudeaketa-prozedura, ebazpena eta ordainketa. Hemen zehazten dira laguntzen motak:
 - a) Desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko laguntza.
 - b) Nazioarteko adopzioetarako laguntza.
 - c) Ugalkortasun-tratamenduetarako laguntza.
 - d) Laguntza bereziak.

1. Es objeto de la presente Circular la regulación del contenido, procedimiento de gestión, resolución y pago de ayudas del Fondo Social para el personal beneficiario de las mismas, en las modalidades que a continuación se indican:
 - a) Ayuda para atención a personas con discapacidad.
 - b) Ayuda por adopciones internacionales.
 - c) Ayuda por tratamientos de fertilidad.
 - d) Ayudas de carácter excepcional.

Mota horiek metatu ahal izango dira, 2.5. artikuluan ezarritako gehieneko mugen barruan.

Las distintas modalidades podrán ser acumulables, con los topes máximos establecidos en el artículo 2.5.

Dirulaguntzak emateko, laguntza ematea eragiten duten gertaerek eta gastua justifikatzeko aurkezten diren agiriek 2023ko ekitaldikoak izan behar dute. (Horregatik, fakturen edo justifikatzeko agirien datek 2023koak izan behar dute).

Para la concesión de las ayudas, tanto los hechos causantes objeto de ayuda como los documentos justificativos del gasto que se presenten deben corresponder al ejercicio 2023 (por lo que la fecha de las facturas o documentos justificativos deben ser de 2023).



2. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa.

1. Likidatuko den ekitaldian, guztira, 66.000 euro daude erabilgarri, uztailearen 6ko 185/2010 Dekretuaren 69. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
2. Laguntzak kalkulatzeko, kontuan hartu beharko da behar bezala justifikatutako gastuek eskatzaileari edo, hala badagokio, familia-unitateari dakarkioten galera ekonomiko pertsonala.
3. Galera ekonomikoaren zenbatekoa — eskaera bakoitza kontuan hartzeko gutxienekotzat hartuko dena— kasu bakoitzean zehaztuko da likidatzen den ekitaldiari dagozkion onuradunaren urteko ordainsari gordinen ehuneko proportzional baten arabera, eskala honi jarraiki:

Ordainsariak	Galera
35.000 € baino gutxiago	% 4
35.000,01 €tik 45.000 €ra	% 5
45.000,01 €tik 55.000 €ra	% 6
55.000,01 € baino gehiago	% 7

Galera ekonomikoa eragiten duten gastuak eskatzailearen ezkontidearenak, izatezko bikotea edo seme-alabenak baldin badira, baita nazioarteko adopzioetarako laguntza kasuan eta ugalkortasun-tratamenduetarako laguntza kasuan ere, honela kalkulatu da galera ekonomikoaren muga: familia-unitateko kideen urteko diru-sarrera gordineko aurreko paragrafoan adierazitako eskalaren arabera aplikatu beharreko ehuneko aplikatuta. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera: ezkontidearen edo izatezko bikotearen diru-sarrerari buruzko dokumentu-ziurtagiri ofiziala: 2023 ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga; edo, halakorik ezean, 2023 ekitaldiko ordaintzaileen 10Tarekin batera, eguneratutako lan-bizitza. Norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan, 2023ko errenta-aitorpena aurkeztu ezean, apirilean aurkeztutako jarduera ekonomikoaren urteko eredia aurkeztu beharko dute.

4. Beraz, dirulaguntzak, oro har, diferentzia hau kontuan hartuta emango dira: behar bezala

Artículo 2.- Importe de las ayudas.

1. El montante disponible para el ejercicio que se liquida asciende a 66.000 euros, de acuerdo con lo establecido en el artículo 69 del Decreto 185/2010.
2. Para el cálculo de las ayudas habrá de atenderse al quebranto económico personal que los gastos debidamente justificados supongan para la persona solicitante o, en su caso, para la unidad familiar.
3. La cuantía del quebranto económico, como umbral a partir del cual atender las distintas solicitudes, vendrá determinado en cada supuesto por un porcentaje proporcional a las retribuciones brutas anuales de la persona beneficiaria correspondientes al ejercicio que se liquida, conforme a la siguiente escala:

Retribuciones	Quebranto
Menores de 35.000 €	4 %
De 35.000,01 a 45.000 €	5 %
De 45.000,01 a 55.000 €	6 %
De 55.000,01 € en adelante	7 %

En el caso de que la persona causante de los gastos sea hijo o hija, cónyuge o pareja de hecho de la persona beneficiaria, así como en los casos de ayudas para adopciones internacionales y ayudas para tratamiento de fertilidad, el quebranto económico será el resultado de aplicar el porcentaje establecido anteriormente sobre los ingresos brutos anuales de los miembros de la unidad familiar y, a tales efectos, se aportará, junto a la solicitud, certificación documental oficial de los ingresos correspondientes al o a la cónyuge o pareja de hecho: Impuesto de la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2023; o en su defecto vida laboral actualizada junto con el 10T de los pagadores del ejercicio 2023. En el caso de aquellas personas que trabajen por cuenta propia, en caso de no aportar la declaración de la renta de 2023 tendrán que aportar el modelo anual de actividades económicas presentado en abril.

4. En definitiva, con carácter general, las ayudas se concederán por la diferencia entre los



justifikatutako gastuen eta galera ekonomikoaren zenbatekoaren artekoa. Gainera, erabilgarri dagoen diruaren araberako doikuntza egin ondorengo ehuneko egokia aplikatuko da. Edozein modutan ere, ez da 50 euroko zenbatekoa baino gutxiagoko laguntzarik emango, eta dirulaguntzaren gehiengo muga 6.000 eurokoa izango da.

5. Deialdi honetan parte hartzen duen pertsona bakoitzari eman dakioken gehieneko zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da, mota bat baino gehiagoko onuraduna dela gertatzen bada.
6. Edonola ere, justifikatutako gastuak gertaera bakar batek eragin baditu, ezin izango da laguntza modalitate desberdinetan eman.
7. Funtsa agortuko ez balitz, hurrengo urteko Gizarte Funtzari gehituko zaio soberakina.

3. artikulua.- Langile-eremua.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan adierazten diren karrerako, praktiketako zein bitarteko funtzionarioek izango dute 1. artikuluan aipatzen diren laguntzak jasotzeko eskubidea.
2. Halaber, laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute hauek: «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako» hitzarmen kolektiboan eta «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko erlijio irakasleen» hitzarmen kolektiboan adierazten diren lan-legepeko irakasle guztiek, finko, mugagabe zein aldi baterako izan. Izan ere, nahiz eta langile horiei ez zaien aplikatzen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, Administrazio honek ondorioztatzen du ez dagoela arrazoi objektiborik gizarte diskriminazio-egoerak sortzeko eta laguntzetatik kanpo uzteko.
3. 2023. urte osoan lanean egon ez diren langileen eskaerei, berriz, urte horretan

gastos debidamente justificados y el importe del quebranto económico, con el porcentaje que corresponda una vez efectuado el ajuste al montante disponible. En cualquier caso, no se concederán ayudas cuyo importe sea inferior a 50 euros. El importe máximo de la ayuda será de 6.000 euros.

5. El importe máximo a conceder por persona participante en la presente convocatoria será de 9.000 euros en el caso de resultar beneficiaria de varias modalidades.
6. En cualquier caso, no se podrá conceder la ayuda en diferentes modalidades cuando los gastos justificados tengan su origen en un mismo hecho causante.
7. Si el fondo no se agotara, el excedente se añadirá al Fondo Social del ejercicio siguiente.

Artículo 3.- Ámbito personal.

1. Podrán causar derecho a las ayudas mencionadas en el artículo 1 el personal funcionario de carrera, funcionario en prácticas y funcionario interino vinculado al ámbito de aplicación del Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
2. Asimismo, todo el personal laboral docente, fijo, indefinido o temporal, a que se refieren el «Convenio Colectivo para el Personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco» y el «Convenio Colectivo del Personal laboral de religión dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco», tendrá derecho a las ayudas. En efecto, aunque a este personal no le es de aplicación el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, esta Administración concluye que no existen razones objetivas para generar situaciones de discriminación y excluirlo de las ayudas sociales.
3. Las solicitudes formuladas por personal que no haya prestado servicios durante la totalidad



lanean emandako denboraren proportzioan emango zaie laguntza.

4. Edonola ere, eskatzailea zerbitzu aktiboan edo zerbitzu aktibotzat jotzen den administrazio-egoeran ari denean eta 2023ko ekitaldian gertatu beharko dira laguntzak eragiten dituen egoera eta gastuak justifikatzeko aurkezten diren agiriak.
5. Kontuan hartuko dira eskatzaileari eta horren ezkontide, izatezko bikote eta seme-alabei eragiten dieten egoerek eta inguruabarrek eragindako eskaerak. Seme-alaben kasuan, salbuespen hauek egingo dira:
 - a) Laguntzen xede den gertaera eragilea gertatu den egunean 25 urte beteta dituztenean, salbu eta erabateko mendetasuna duten desgaituak badira.
 - b) Beste familia-unitate batekoak direnean, edo langilearekin elkarbizitzen ez direnean. Bere ondorengoak onuradunarekin elkarbizitzen ari direla joko da, haren mendean badaude, zentro espezializatuetan barneratuta daudenean.
 - c) Likidatzen den ekitaldian, lanbide arteko gutxieneko soldata gaintitzen duten urteko lan-errentak jasotzea, norberaren kontura zein besteren kontura.

4. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1. 15 baliiodun eguneko epea egongo da eskabideak aurkezteko, zirkular hau Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.
2. Eskaerak *Hezigunea* ingurunean jarriko den berariazko aplikazio baten bidez egingo dira.

5. artikulua.- Eskabideak eta dokumentazioa.

1. Laguntza hauen aplikazio-eremuen barruko bi subjektuk eskabidea aurkezten badute egitate sortzaile berberetatik, subjektuetako

del año 2023 serán atendidas en cuantía proporcional al tiempo trabajado durante dicho año.

4. En todo caso, tanto el hecho causante que dé lugar a las ayudas como los documentos justificativos de los gastos deberán haberse producido cuando la persona solicitante esté en servicio activo o en alguna otra situación administrativa equiparable, y en el ejercicio 2023.

5. Se considerarán aquellas solicitudes que traigan causa en situaciones y circunstancias que afectan a la persona solicitante y las referidas a cónyuges, pareja de hecho, hijos e hijas, con las excepciones siguientes en cuanto a hijos e hijas:

- a) Cuando tengan cumplidos 25 años en la fecha en que se haya producido el hecho causante objeto de las ayudas, excepto que se trate de personas con discapacidad con dependencia absoluta.
- b) Cuando formen parte de otra unidad familiar, o no convivan con la persona trabajadora. Se considerará que conviven con la persona beneficiaria descendientes que, dependiendo de la misma, estén internadas en centros especializados.
- c) Cuando obtengan rentas de trabajo, computadas anualmente, superiores al salario mínimo interprofesional, tanto por cuenta propia como por cuenta ajena, en el ejercicio que se liquida.

Artículo 4.- Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

1.- Las solicitudes se formularán en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la fecha de publicación de esta circular en la página web del Departamento de Educación.

2.- Las solicitudes se realizarán mediante una aplicación específica que se pondrá a disposición en el entorno de *Hezigunea*.

Artículo 5.- Solicitudes y documentación.

1. En aquellos supuestos en que dos sujetos incluidos en los ámbitos de aplicación de estas ayudas presenten solicitud en esta convocatoria por el mismo hecho causante,



batek bakarrik jaso ahal izango du dagokion laguntza.

2. Eskabideekin batera, laguntza-modalitate bakoitzean eskatzen den dokumentazio espezifikoa aurkeztuko da, PDF formatuan, jatorrizko kopiekin bat etorriz. Horretarako, eskatzaile bakoitzak Heziguneko aplikazioan bertan agertuko den erantzukizunpeko adierazpen bat berretsiko du.
3. Espedienteak ebazteko behar diren datuak egiaztatu eta argitzeko, Administrazioak eskatu ahal izango die datu horiei buruzko dokumentazioa edo eskatzaileen administrazio edo lan egoerari buruzko dokumentazioa beste sail, erakunde, administrazio edo entitateei.

6. artikulua.- Kudeatzeko prozedura.

1. Hezkuntza Saileko web-orriaren bidez argitaratuko da zirkular hau.
2. Eskaerak bide telematikoz egingo dira, Hezigunea ingurunean irakasleen eskura jarritako aplikazioaren bidez.
3. Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, jasotako eskabideen zerrenda argitaratuko da Hezigunean, eta, horren aurka, erreklamazioak egin ahal izango dira, 5 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
4. Eskabideak Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira.
5. Nominaren bitartez ordainduko da.
6. Errekurtso aldiaren interesdunaren aldeko ebazpenik egonez gero, hurrengo urteko Gizarte-Funtsaren bidez ordaindu egingo dira, hala badagokio.

7. artikulua.- Bateragarritasunak.

Laguntza hauek bateragarriak dira nomina aurrerakinekin, itzultzeko aurrerakinekin edo

sólo uno de ellos podrá percibir la correspondiente ayuda.

2. Las solicitudes se acompañarán de la documentación específica requerida en cada modalidad de ayuda en formato PDF que deberá corresponderse con las copias originales, para ello cada solicitante confirmará una declaración responsable que aparecerá en la misma aplicación de Hezigunea.
3. A los efectos de comprobación y esclarecimiento de los datos en virtud de los cuales deben resolverse los expedientes, la Administración podrá solicitar documentación relativa a los mismos o a la situación administrativa o laboral de las personas solicitantes a otros departamentos, organismos, administraciones o entidades.

Artículo 6.- Procedimiento de gestión.

1. La publicidad de esta Circular se hará a través de la página web del Departamento de Educación.
2. Las solicitudes se realizarán por vía telemática mediante aplicación puesta a disposición de los y las docentes en el entorno de Hezigunea.
3. Mediante resolución de la Directora de Gestión de Personal se publicará en el entorno Hezigunea la relación de solicitudes recibidas, contra la cual se podrán formular las reclamaciones que sean pertinentes en el plazo de 5 días hábiles, a partir del día siguiente a su publicación.
4. Las solicitudes se resolverán mediante resolución de la Directora de Gestión de Personal.
5. El pago se efectuará a través de nómina.
6. Si alguna solicitud fuese resuelta favorablemente en fase de recurso, se abonará con cargo al Fondo Social del año siguiente, si es preciso.

Artículo 7.- Compatibilidades.

Estas ayudas son compatibles con los adelantos de nómina, anticipos reintegrables o cualquier



nominaren hileroko atxikipena ekarri eta herri administrazioak emandako beste edozein laguntzarekin.

8. artikulua.- Bateriaezintasunak.

1. Zirkular honetan jasotzen diren laguntza motak bateraezinak dira egitate sortzaile bererako beste edozein erakunde edo entitate publikok ematen dituen laguntzekin, salbu beste erakunde horrek emandakoa jasotakoa baino txikiagoa bada. Halakoetan, aldea eskatu ahal izango da, eta horretarako laguntzaren izaera eta zenbatekoa egiaztatu egin beharko da, dokumentuak aurkeztuta.
2. Halaber, bateraezinak dira helburu bererako beste hitzarmen edo hitzarmen kolektibo batzuetan aurreikusitako laguntzekin, horien onuraduna familia-unitateko beste kide bat denean. Hala ere, aurreko paragrafoan bezala, jasotzen den laguntza hori eskatzen dena baino txikiagoa denean, aldea eskatu ahal izango da, eta horretarako laguntzaren izaera eta zenbatekoa egiaztatu egin beharko da, dokumentuak aurkeztuta.
3. Gizarte Segurantzak estalitako tratamenduek ere ezingo diote gizarte-funtsari heldu.

9. artikulua.- Eskabideak faltsutzea.

Datuak ezkutatu, aurkeztutako dokumentuak faltsutu edo eskatutako ezer ukatuz gero, eskatutako laguntza ukatu egingo da edo jasotako laguntza galdu; halakoetan, desegoki jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira eta Kode Penalaren 390. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako erantzukizun penalak eskatu ahal izango dira, baita erantzukizun administratibo eta zibilak ere.

II. KAPITULUA OINARRI BEREZIAK

otra prestación concedida por la Administración Pública que suponga retención mensual en nómina.

Artículo 8.- Incompatibilidades.

1. Las modalidades de ayudas objeto de esta Circular son incompatibles con la percepción de otras de naturaleza similar concedidas por cualquier organismo o entidad pública para el mismo hecho causante, salvo que fueran de cuantía inferior, en cuyo caso, si se acreditan documentalmente su naturaleza y cuantía, podrá solicitarse la diferencia.
2. Así mismo, son incompatibles con las ayudas previstas para los mismos supuestos en otros Acuerdos y Convenios Colectivos a los que pueda estar adscrito otro miembro de la unidad familiar y ser beneficiario de las mismas, excepto que como en el apartado anterior, fueran de cuantía inferior, en cuyo caso, si se acreditan documentalmente su naturaleza y cuantía podrá solicitarse la diferencia.
3. Tampoco podrán acogerse al fondo social los tratamientos cubiertos por la Seguridad Social.

Artículo 9.- Falsedad en solicitudes.

La ocultación de datos, la falsedad en la documentación aportada o la omisión de la requerida dará lugar a la denegación de la ayuda solicitada o pérdida de la concedida, con la devolución, en este último caso, de las cantidades indebidamente percibidas, con independencia de las responsabilidades penales previstas en el artículo 390 y siguientes del Código Penal, así como las responsabilidades civiles y administrativas a que pudiera haber lugar.

CAPÍTULO II BASES ESPECÍFICAS



10. artikulua.- Desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko laguntzak.

1. Laguntza mota honen helburua da % 33koa edo handiagoa den desgaitasun gradua duten pertsonentzat gorputz-urritasunen edo urritasun psikiko eta sentsorialen tratamendu, errehabilitazio edo arreta berezia ordaintzeko sortzen dituen gastuak finantzatzea, baita odontologia-gastuak, betaurreko edo lenteak, audifonoak, inplanteak, protesiak, aulki gurgildunak eta makuluak ere aurkeztutako desgaitasunarekin zer ikusia izango balu.
2. Era berean, desgaitasuna duen pertsonaren premietara motordun ibilgailua edo etxebizitza egokitzeko gastuak ere jasotzen ditu; gehienez ere, 1.500 eta 3.000 euro emango dira, hurrenez hurren.
3. Baldin eta desgaitasuna duen pertsona, haren gurasoak, senar-emaztea edo izatezko bikotea, desgaitasunaren ondorioz, osasun-zerbitzu publikoak edo mutualitateak ordaintzen ez dituzten osasun-gastuengatik eman den dirulaguntza baten onuradun badira, dirulaguntza horren % 25 justifikazio zaileko gastuetarako erabiliko da, eta gainontzeko % 75a Gizarte-Funtsaren kargura laguntzeko moduko gastuei kenduko zaie.
4. Dokumentazioa:
 - a) Desgaitasunaren ziurtagiria, organo eskudunak emana. % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila egiaztatutzat joko da Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, baldin eta ezintasun iraunkor oso, absolutu edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta badute.
 - b) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) egiaztapena, kasuan kasurako esleituta duen pentsioaren edo familia-prestazioaren zenbatekoa jasotzen duena; edo ziurtapen negatiboa, hala badagokio.

Artículo 10.- Ayuda para atención a personas con discapacidad.

1. Esta modalidad de ayuda está destinada a financiar los gastos originados con ocasión del pago de tratamiento, rehabilitación o atención especial de limitaciones físicas, psíquicas o sensoriales, así como gastos odontológicos, lentes y audífonos, implantes, prótesis, sillas de ruedas y muletas relacionadas con la discapacidad que tengan, siempre que el grado de discapacidad sea del 33 % o superior.
2. Así mismo incluye los gastos necesarios para la adaptación de vehículo a motor y vivienda a las necesidades de la persona con discapacidad, con un límite máximo de 1.500 y 3.000 euros respectivamente.
3. En el supuesto de que la persona con discapacidad, sus progenitores, cónyuge o pareja de hecho resulten beneficiarias de alguna ayuda económica que, como consecuencia de la discapacidad, haya sido concedida por gastos de enfermedad no cubiertos por el servicio público de salud o por la mutualidad correspondiente, el 25 % de la misma se considerará destinada a compensar gastos de difícil justificación y el 75 % restante se descontará de los gastos subvencionables con cargo a este fondo social.
4. Documentación:
 - a) Certificado de la discapacidad, expedido por el órgano competente. Se considerará acreditado un grado de discapacidad igual o superior al 33% en el caso de pensionistas de la Seguridad Social que tengan reconocida una pensión de incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez.
 - b) Certificado del INSS en el que conste la cuantía de la pensión o prestación familiar que, en su caso, tenga asignada, o certificación negativa al efecto.



- c) Egoitza finkatuta duen lurraldeko Foru Aldundiaren edo erakunde eskudunaren ziurtagiria, desgaitasuna duen pertsona dela eta ekitaldian jasotako laguntzei buruzkoa, edo ziurtapen negatiboa, hala badagokio.
- d) Eskatzailearen eta ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen 2023ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga; edo, halakorik ezean, 2023ko ekitaldiko ordaintzaileen 10Tarekin batera eguneratutako lan-bizitza. Norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan, 2023ko errenta-aitorpena aurkeztu ezean, apirilean aurkeztutako jarduera ekonomikoen urteko eredia aurkeztu beharko dute.
- e) Legearen arabera egindako fakturak eta horien ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa, ordainketa egin duen pertsona eskatzailea, haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea dela egiaztatzeko. Fakturak establezimendu espezializatuek igorritakoak izan beharko dira. Fakturen jaso beharrekoak: IFK/IFZ, data eta sinadura, baita eskuratutako ondasunaren xehetasuna eta eroslearen izen-abizenak eta helbidea ere.
- f) Arreta bereziko kasuetan: arreta hori burutuko duen pertsonarekin egindako lan-kontratua. Bertan kontratuaren xedea arreta berezia dela azaldu beharko da.
- g) Eskatzailearen ezkontideari, izatezko bikoteari edo seme-alabei eragiten dieten egoera eta zirkunstantzietan egindako eskaeren kasuan: familia-liburuaren fotokopia, errolda-ziurtagiria eta eskatzailearen eta ezkontidearen, izatezko bikotearen, semearen edo alabaren 2023ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga; edo, halakorik ezean, 2023ko ekitaldiko ordaintzaileen 10Tarekin batera eguneratutako lan-bizitza. Norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan, 2023ko errenta-aitorpena aurkeztu ezean, apirilean aurkeztutako jarduera ekonomikoen urteko eredia aurkeztu beharko dute.
- c) Certificado de la Diputación Foral, u organismo competente del territorio donde tenga fijada su residencia, sobre las ayudas recibidas durante el ejercicio en atención a la persona con discapacidad, o certificación negativa en su caso.
- d) Impuesto de la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2023 del solicitante y la del cónyuge o pareja de hecho; o en su defecto vida laboral actualizada junto con el 10T de los pagadores del ejercicio 2023. En el caso de aquellas personas que trabajen por cuenta propia, en caso de no aportar la declaración de la renta de 2023 tendrán que aportar el modelo anual de actividades económicas presentado en abril.
- e) Facturas legalmente conformadas. Dichas facturas estarán expedidas por establecimientos especializados, y documentación acreditativa del pago de estas mediante el cual pueda comprobarse que la persona que ha realizado el pago es la solicitante, su cónyuge o pareja de hecho. En las facturas deberán constar el CIF/NIF, fecha y firma, así como detalle del bien adquirido, nombre, apellidos y domicilio de la persona compradora.
- f) En los casos de atención especial de limitaciones físicas: contrato laboral suscrito con la persona que vaya a realizar dicha atención, en el cual deberá constar que el objeto del contrato es la atención especial.
- g) En los casos de solicitudes que traigan causa en situaciones y circunstancias que afectan a cónyuge, pareja de hecho, hijos o hijas de la persona solicitante: fotocopia del libro de familia, certificado de empadronamiento y el Impuesto de la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2023 del solicitante y la del cónyuge, pareja de hecho, hijo o hija; o en su defecto vida laboral actualizada junto con el 10T de los pagadores del ejercicio 2023. En el caso de aquellas personas que trabajen por cuenta propia, en caso de no aportar la declaración de la renta de 2023 tendrán que aportar el modelo anual de actividades económicas presentado en abril.



11. artikulua.- Nazioarteko adopzioak.

1. Prestazioa atzerriko herrietako adin-txikikoak adoptatzearen sortutako gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoa izango da.
2. Adopzio-espeditare kudeaketaren iraunaldia urtebete baino gehiagokoa izanez gero, eskaera horren amaieran aurkez daiteke.
3. Dokumentazioa:
 - a) Adopzioa onartzeko jatorrizko herriak emandako ebazpen judiziala, edo adin-txikiko adoptatuaren inskripzioa jasotzen duen familia-liburuaren fotokopia.
 - b) Adopzioa dela-eta burututako gastuen frogagiriak eta horien ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa, ordainketa egin duen pertsona eskatzailea, haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea dela egiaztatzeko.
 - c) Eskatzailearen eta ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen 2023ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga; edo, halakorik ezean, 2023ko ekitaldiko ordaintzaileen 10Tarekin batera eguneratutako lan-bizitza. Norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan, 2023ko errenta-aitorpena aurkeztu ezean, apirilean aurkeztutako jarduera ekonomikoen urteko eredu aurkeztu beharko dute.

12. artikulua.- Ugalkortasun-tratamenduak.

1. Prestazioa ugalkortasun tratamenduak sortutako gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoa izango da.
2. Ugalkortasun tratamenduei dagokienez, osasun-sistema publikoaren edo mutualitate-

Artículo 11.- Adopciones internacionales.

1. La prestación consistirá en una ayuda económica destinada a financiar los gastos originados en orden a adopciones de menores en países extranjeros.
2. Cuando la duración de la tramitación del expediente de adopción internacional se prolongue más de un año, la solicitud podrá presentarse al final de la tramitación de este.
3. Documentación:
 - a) Resolución judicial del país de origen por la que se concede la adopción o fotocopia del libro de familia en el que conste la inscripción de la persona menor adoptada.
 - b) Justificantes de los gastos realizados con motivo de la adopción, y documentación acreditativa del pago de estas mediante el cual pueda comprobarse que la persona que ha realizado el pago es la solicitante, su cónyuge o pareja de hecho.
 - c) Impuesto de la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2023 del solicitante y la del cónyuge o pareja de hecho; o en su defecto vida laboral actualizada junto con el 10T de los pagadores del ejercicio 2023. En el caso de aquellas personas que trabajen por cuenta propia, en caso de no aportar la declaración de la renta de 2023 tendrán que aportar el modelo anual de actividades económicas presentado en abril.

Artículo 12.- Tratamientos de fertilidad.

1. Esta modalidad de ayuda está destinada a financiar los gastos originados con ocasión del pago de tratamiento de fertilidad.
2. En los supuestos en que el tratamiento médico sea de reproducción asistida, se deberá acreditar su exclusión de las



publikoaren prestazioetatik kanpo dagoela egiaztatu beharko da.

3. Tratamenduaren iraunaldia urtebete baino gehiagokoa izanez gero, eskaera horren amaieran aurkez daiteke.

4. Dokumentazioa:

a) Organo eskudunak (Osakidetza, GSIN, Mutualitateak) emandako ziurtagiria, izan duen tratamendua prestaziotik kanpo dagoela jasotzen duena.

b) Tratamendua jaso duen zentro espezializatuak emandako fakturak, legearen arabera egindakoak (zirkular honetako 10.4 artikulua, e) atala) eta horien ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa, ordainketa egin duen pertsona eskatzailea edo beste gurasoa dela egiaztatzeko.

c) Familia-liburuaren kopia. Halakorik izan ezean, familia-unitateko kide diren bizikide guztiak jasotzen dituen errolda-ziurtagiria. Ama bakarrik izanez gero, guraso bakarra izango dela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

d) Eskatzailearen eta ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen 2023ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga; edo, halakorik ezean, 2023ko ekitaldiko ordaintzaileen 10Tarekin batera eguneratutako lan-bizitza. Norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan, 2023ko errenta-aitorpena aurkeztu ezean, apirilean aurkeztutako jarduera ekonomikoaren urteko ereduak aurkeztu beharko dute.

prestaciones del sistema sanitario o mutualista público.

3. Cuando la duración del tratamiento afecte a más de un año, la solicitud podrá presentarse al final del tratamiento.

4. Documentación:

a) Certificado expedido por el órgano competente (Osakidetza, INSS, Mutuas) en el que se haga constar que el tratamiento queda excluido de prestación.

b) Facturas legalmente conformadas (artículo 10.4 apartado e). Dichas facturas estarán expedidas por establecimientos especializados. Y documentación acreditativa del pago de estas mediante el cual pueda comprobarse que la persona que ha realizado el pago es la solicitante o el otro progenitor.

c) Copia del libro de familia. En caso de no tenerlo, certificado de empadronamiento donde figuren todas las personas convivientes miembro de la unidad familiar. En caso de ser madre en soledad, declaración responsable de que será la única progenitora.

d) Impuesto de la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2023 del solicitante y la del cónyuge o pareja de hecho; o en su defecto vida laboral actualizada junto con el 10T de los pagadores del ejercicio 2023. En el caso de aquellas personas que trabajen por cuenta propia, en caso de no aportar la declaración de la renta de 2023 tendrán que aportar el modelo anual de actividades económicas presentado en abril.

13. artikulua.- Laguntza bereziak.

1. Premia eta larritasun berezia kontuan hartuta, ohiz kanpokoak edo iraunkorrak ez diren eta

Artículo 13.- Ayudas de carácter excepcional.

1. Podrán considerarse en razón de su especial urgencia y gravedad, otros supuestos de



egoera ekonomiko pertsonal edo familiarerako karga berezia dakarten salbuespenezko beste kasu batzuk ere kontuan hartu ahal izango dira, zirkular honen 2. artikuluan ezarritako galera ekonomikoaren zenbatekoa zehazteko xedatzen denarekin bat etorrira.

Edonola ere, egoera horietan Batzorde Paritarioak izango du azken akordioa hartzeko eskuduntza, aurkeztutako dokumentazioa ikusita.

2. Dokumentazioa. Eskabidearen arrazoiaren araberako dokumentazioa aurkeztuko da, eta arrazoia hobeto ezagutzeko interesdunek egokitzat jotzen dituzten dokumentu guztiak ere aurkeztuko dira. Edonola ere, burututako gastuen frogagiriak aurkeztu beharko dira, eta horien ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa, ordainketa egin duen pertsona eskatzailea edo haren ezkontidea edo izatezko bikotea dela egiaztatzeko.

3. Nolanahi ere, oro har, atal honetan ez da sartuko odontologia-gasturik, ezta betaurreko-lenteen, audifonoen, ibilgailuen, oftalmologia-ebaketen gasturik ezta norberaren edo senideen ikasketengatik gastuak ere.

14. artikulua.- Datu pertsonalak.

Zure datu pertsonalak erabiliko dira eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat

naturaleza excepcional, que no tengan carácter habitual o permanente, y que comporten especial gravamen para la situación económica personal o familiar, de acuerdo con la determinación de la cantidad del quebranto económico establecida en el artículo 2 de la presente circular.

En los citados supuestos competirá, en cualquier caso, a la Comisión Paritaria la adopción de un acuerdo final a la vista de la documentación aportada.

2. Documentación: La que corresponda en función de la naturaleza del motivo de la solicitud y que por las personas interesadas se considere oportuna para un mejor conocimiento de la causa, incluyendo en todo caso los justificantes de los gastos realizados, y documentación acreditativa del pago de estas mediante el cual pueda comprobarse que la persona que ha realizado el pago es la solicitante o su cónyuge o pareja de hecho.

3. En cualquier caso, con carácter general se excluyen los gastos odontológicos, la adquisición de lentes, la adquisición de audífonos, la compra de vehículos, las intervenciones oftalmológicas, y los gastos por estudios tanto propios como de familiares.

Artículo 14.- Datos personales

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Gestión de personal.

Responsable: Dirección de Gestión de Personal, Departamento de Educación.

Finalidad: Gestión de personal docente y no docente.

Legitimación:

- Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales



betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu batekina onartzen duena.

Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak (L_2016119ES.01000101.xml (europa.eu)) (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

• Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.

• Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

• Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Destinatarios:

- Otros órganos de la Administración del Estado.
- Otros órganos de la Comunidad Autónoma.

Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

Información adicional: puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml.

Normativa:

- Reglamento General de Protección de Datos (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/es_def/adjuntos/rgpd_2016R0679-es-eu.pdf)
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (L_2016119ES.01000101.xml (europa.eu)). (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 6a.
Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 2024.

Sin.: Blanca Guerrero Ocejo

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL